



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, XEDE DUENA IRUÑEKO UDALAREN IRISGARITASUN INTEGRALEKO UDAL KONTSEILUA SORTZEAK UKITZEN AHAL DITUEN HERRITARREN ETA ORDEZKARITZA-ERAKUNDEEN IRITZIA JASOTZEA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1. artikulua xedatzen duenez, Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da Administrazio eskudunaren webgunearen bidez, zeinean jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauak ukitzen ahal dituen subjektuek eta erakunderik ordezkagarrienek honako hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Egoten ahal diren konponbide alternatibo erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak.

Dokumentu honen xedea da galdera horiei erantzutea eta Iruñeko Udalaren Irisgarritasun Integraleko Udakontseilua sortu aurreko kontsultaren oinarri izatea, arauaren hartzaile izaten ahal direnek eta herritarrek, oro har, parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

Iruñeko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek 2024ko abenduaren 18an onetsitako Iruñeko hiriaren Irisgarritasun Integraleko Plan Estrategikoan 0. lldo estrategikoa jasotzen da, Irisgarritasunaren zeharkakotasuna eta erantzunkidetasuna izenekoak. Horren barruan, "Iruña 2030 Hiri Agenda hiri-estrategiako "irisgarritasun unibertsala" irizpide horizontala garatzea izeneko 0.1 helburu operatiboan jasota dator 0.1.3 ekintza, "Iruñeko irisgarritasun integraleko kontseilua eratzea" izenekoak.

Planaren garapenean hauteman da beharrezkoa dela parte hartzea gauzatzeko figura bat sortzea, indarrean den Iruñeko Udalaren Partaidetzarako Erregelamenduarekin bat, sektoreko partaidetza-organoaren izaera esleitzea eta Irisgarritasun Integraleko Kontseilua izena izan dena.

Kontseiluaren funtsezko helburua izanen da udal-politiken azterketa eta koprodukzioa sustatzea sektoreko eragileen, herritarren, gizarte-ehuneko erakundeen, ekonomia-ehuneko erakundeen, udal-teknikarien, instituzio-ehuneko teknikarien eta udal-



agintarien artean, irisgarritasun integralarekin eta Planaren garapenarekin lotutako gaien inguruan. Horrez gain, hura eratuta aukera egonen da lanerako gune egonkor bat sortzeko, hala ideiak trukatzeko nola elkarrekin landu eta ekoizteko. Horren emaitza nagusia Iruñeko Irisgarritasun Unibertsaleko Urteko Plan Operatiboa izanen da.

b) Onestea beharrezko eta egoki den.

Desgaitasunen bat duten pertsonak modu independentean bizitzeko eta bizitzako alderdi guztietan bete-betean parte hartzeko duten eskubidea hertsiki lotuta dago botere publikoek pertsona guztien aukera-berdintasuna bermatuko duten irisgarritasunaren eta bereizkeriarik ezaren oinarritzko baldintza batzuk ezartzeko duten betebeharrarekin. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorak hauxe dio atarikoan:

Desgaitasunen bat duten pertsonen gizataldea multzo handia da, oso kontu handia behar duena; gainera, gizartearen antolaerak eta jarduteko moduak bazterturik eduki ditu maiz, ezaguna den egoeran. Egoera horretan, haien funtsezko eskubideak eta askatasunak murrizturik egon dira, haien giza garapena oztopaturik, herritar guztien eskura egon ohi diren baliabide eta zerbitzuez ere ezin izan dute besteei bezala gozatu, eta ezin izan diote lagundu gizartearen aurrerabideari beren gaitasunekin.

Bizimodu betea egiteko gurariak eta beren burua garatzeko beharrak bizi ditu pertsona hauek ere, baina ezin izaten dituzte nahi horiek bete, baldin askatasunerako, berdintasunerako eta duintasunerako eskubideak murriztu egiten bazaizkie edo aintzat hartzen ez bazaizkie. Horixe da, oraindik, desgaitasunen bat duten emakumeen eta gizonen egoera; izan ere, ezin ukatu diren arren gizartean izan diren aurrerapen asko, eskubideak murrizturik aurkitzen dituzte zenbait ingurune, prozesu edo zerbitzu eskuratzeko edo haietan parte hartzeko orduan, haien behar espezifikoak kontuan hartu gabe pentsatu izan direlako edo haien parte hartzea eragozten dutelako berez.

Badira, beraz, eragozpen ugari eta askotarikoak, desgaitasunen bat duten pertsonen beren eskubideak bete-betean baliatzea eragozten dietenak, eta eragozpen horien ondorioek bazterketa soziala eragiten dute; hala, botere publikoek konponbidea ipini behar diote bazterketa sozial horri, aitzakiarik gabe.

Aukera-berdintasuna sustatzen duten neurriak bultzatzea eta, horretarako, desgaitasunen bat duten pertsonentzako oztopoak kentzea herritar, erakunde eta entitate guztien zeregina da, baina, batez ere, legegilearena, beharrianak hauteman eta konponbideak proposatu behar baititu, ekintza-lerro orokor egokiarekin batera. Lehenago ere frogatu izan dugunez, beharrezkoa da desgaitasunari buruzko arau-esparruak eta ekintza publikoek gizartearen antolamenduan eta haren adierazpide material edo harremanezkoetan eragin dezaten, zeintzuek, beren egitura eta jarduerekin, baztertu edo gibelarazi egiten baitituzte desgaitasunen



bat duten pertsonak ohiko bizimodutik; eta, eragin ere, desgaitasunen bat duten pertsonak ere aukera izan dezaten, eskubidedun subjektu aktibo gisa, bizimodua gainerako herritarrekiko baldintza-berdintasunean egiteko”

Iruñeko Udalak urte asko daramatza eraikin, espazio publiko, garraio publiko eta zerbitzuetan irisgarritasuna hobetzeko lanarekin konprometiturik. Konpromiso horri esker, gure hiriko eraikin eta kaleetan hobekuntza-lan ugari gauzatu dira, ekipamenduak erosi dira eta irisgarritasuna gero eta gehiago hartzen da zeharkako premiatzat. Lan hori dela-eta, Udalak hainbat sari jaso ditu, harro jaso ere: FAACren Irisgarritasun Unibertsalaren Urrezko saria 2019an, 2010. urteko Reina Sofía saria, irisgarritasun unibertsalaren alde egindako ekintza “berritzaile, irudimentsu eta kalitatezkoengatik”, edo aipamen berezia eraikitako eremuen eta espazio publikoen arloan egindako ekimenengatik.

Ibilbide horri jarraipena emanez, berriki onetsi den Iruñeko hiriaren Irisgarritasun Integraleko Plan Estrategikoa tresna berri bat da, eta Iruñeko udalerrian irisgarritasun unibertsala aztertzea, kudeatzea eta sustatzea du xede. Gure ingurunearen irisgarritasun-baldintzak hobetzea ingurune hori pertsona guztientzat hobetzea da; izan ere, bai aldi baterako beharrengatik, bai bizitzaren bilakaeraren eskakizunengatik, edozein pertsonak aurkituko ditu hobekuntzak bere egunerokoan. Beraz, plan honen bidez irisgarritasunaren eta desgaitasunaren binomio tradizionala hausten duen paradigma-aldaketan lagundu nahi da, eta, gainera, irisgarritasunaren ikuspegia zerbitzuetara zabaltzea nahi da, eta ez inguruneetara soilik, eta horrekin batera, baita irisgarritasun unibertsala zeharkako kontzeptu estrategikotzat hartu behar delako ikusmoldea ere.

Illo horretan, Planak helburu horiek lortzeko ildo estrategikoak jasotzen ditu eta Iruñeko Udalaren zeharkako ekintza-tresna sistematiko nagusi bihurtzen da; izan ere, helburu horiek ezartzeko eta ebaluatzeko ardura duten egiturak eta organoak ezartzen ditu, eta zeregin horretan Irisgarritasun Integraleko Udal Kontseilua funtsezko organoa da.

c) Arauaren helburuak.

- Iruñeko Udalaren Irisgarritasun Integraleko Udal Kontseilua sortzea
- Kontseiluaren helburua eta izaera ezartzea
- Irisgarritasun unibertsalaren alde lan egiten duten herritarrek eta erakunderik adierazgarrienek parte hartzeko mekanismoak artikulatzea.
- Irisgarritasun Integraleko Udal Kontseiluaren eginkizunak definitzea.
- Irisgarritasun Integraleko Udal Kontseiluaren osaera ezartzea.
- Antolamendu- eta funtzionamendu-araubidea ezartzea.



- Mahaikideak hautatzeko, zein epetarako hautatzen diren, horiek kargugabetzeko eta kideek uko egiteko prozedura ezartzea.

d) Egoten ahal diren konponbide alternatibo erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Ez da jasotzen ordezeko konponbide erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

PARTE HARTZEKO EPEA

2026ko ekainaren 22tik uztailaren 3ra.

EKARPENAK BIDALTZEKO

accesibilidad@pamplona.es